

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

LEHENDAKARITZA

3531

30/2020 DEKRETUA, irailaren 7koa, lehendakariarena, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua izendatzeko dena.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 33.2 artikulua eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.b) artikulua ematen dizkidaten ahalmenen arabera, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Javier Hurtado Domínguez jaunaren merezimenduak eta dohainak kontuan hartuta, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburu izendatzen dut.

Agintari eta herritar guztiei agintzen diet bete ditzatela legeen arabera dagozkion egitekoak betetzean ematen dituen aginduak pertsona eta agintari legez dagokion begirunea erakutsita.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko irailaren 7an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.